

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak Saray Bularreko Minbiziaren Nafarroako Elkartearen "lan solidario eta eredugarria" aldarrikatu du Urrezko Domina emanez

Barkos Lehendakariak Foru Komunitateko golardorik gorena eman dio elkarte honi, 2018ko Nafarroaren Eguna ospatzeko ekitaldi instituzional nagusiaren barnean


Astelehena, 2018.eko abenduak 3

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek Nafarroako Urrezko Domina eman dio SARAY Bularreko Minbiziaren Nafarroako Elkarteari, erakunde honek "osasuna sustatzeko egiten duen lan solidario eta eredugarria" nabarmendu duelarik. Halaber, Barkosek esan duenez, "golardo honen bitartez, lau haizeetara aldarrikatu nahi dugu, gaitasunaren berezko arazoei aurre egiten laguntzen duten beharrezko zerbitzu eta programen multzoa garatu eta finkatzeko nahiz eritasunaren ondorio fisiko, psikologiko eta sozialak gainditzeko, elkarte honek egin duen ahalegina

" Halaxe mintzatu da Barkos Lehendakaria SARAY elkarteari Nafarroako Urrezko Domina eman dionean, Nafarroaren Eguneke ospakizunari bukaera emateko Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuko klaustro isabeldarrean egindako ekitaldi solemnean.

Bertan izan dira nafar agintari nagusiak: Gobernuko kontseilariak, Parlamentuko Lehendakari Ainhoa Aznárez, Gobernu Zentralaren Nafarroako ordezkari José Luis Arasti, parlamentariak, alkateak eta bestelako agintariak. Ekitaldia girotzeko, Nora abesbatzak Nafarroako ereserkia eskaini du, Josu Elberdinen "Segalariak", Greg Gilpinen "Why we sing" eta L.Elizalderen "Jotas a la Navarra" doinuekin batera.

Aurten, lehendabiziko aldiz, herritarrek parte hartzeko prozesua abiarazi da, gizartea hobetzen, balio demokratikoak indartzen edota Foru Komunitatearen kanpoko irudia bultzatzen laguntzeagatik nabarmendu



diren pertsonak, erakundeak, entitateak eta kolektiboak aldarrikatzea xede duen Nafarroako golardo gorenerako hautagaitzak aurkezteko.

Ekitaldiari hasiera eman dion "Erresumako Gortearen Sarrerako Martxa" ereserki ofizialaren ondoren, dominaren esleipena eta honetarako merezimenduak zehazten dituen azaroaren 7ko 92/2018 Foru Dekretua irakurtzeari ekin zaio.

Jarraian, Nafarroako Lehendakariak domina eman die SARAYren ordezkari.

Interesik eta baldintzarik gabeko laguntza

Barkosek bertaratutakoen aurrean hitz egin du, 1996az geroztik bularreko minbizia duten pertsonen eta hauen senitartekoen "laguntza integrala, pertsonala eta indibidualizatua" eskaintzen dien elkarte honen laudoriotan.

Lehendakariak

"duela 22 urte Saray proiektua bultzatu zutenen kemena eta erabakimena" goraiatu ditu, eta Nafarroako herritar guztien izenean, eskerrak eman dizkie, "emozioen kudeaketa, komunikazioa eta ahalduz ardatz dituen arreta profesionalaren bitartez eskaintzen duten interesik eta baldintzarik gabeko laguntzagatik. Betiere pertsonaren intimitate eta autonomiarekiko errespetuak dakarren tratua humanizazioaren alde".

"Horregatik –gaineratu du–, nahitaezkoa da Saray bularreko minbizia diagnostikatua duten emakumeen eskaintzen dien laguntza: berotasuna eta konfiantza ematen baitizkie zalantza eta beldurraren aurrean, eta beharrezko animoa, adorea eta irmotasuna ematen baitizkie suspertze prozesuari aurre egin eta normaltasunera gogoz beterik itzuli ahal izateko".


"Bestalde, Ana Sarasak, Saray-ko lehendakariak, eskerrak eman dizkie Nafarroako Gobernuari eta "Nafarroako Urrezko Domina gaur SARAY-ren bularrean jartzea posible egin dutenei. Duela hogeita bi urtetik hona, bular birtual eta kolektibo honetan biltzen dira nahi ez diren tumore horiek kaltetutako pertsona guztiak, batzuk iragankorrak eta besteak ez, bizitza aldatu zigutenak; batzuk botatzea lortu dugu eta beste batzuk oraindik ahalegintzen ari gara. Denok gaude gaur hemen bularra bistan,... lortu genuenak, lortu nahi zutenak eta ezin izan zutenak. Guztiei jartzen diegu Domina hau, sendatu ezin den bakarrik bizitzeko gogo delako gogoratzeko".

Ildo horretan, bide honetan jarraitu behar dela azpimarratu du, "betiere Osasunbidea - Nafarroako Osasun Zerbitzuan artatzen gaituzten profesionalen eskutik, gure bizitzak salbatzeko ahaleginak eta bi egiten dituztelako; babesten gaituzten erakundeak, kolaboratzaileen eta babesleen eskutik; haien bazkideen eskutik; daudenen eta utzi gaituztenen bidetik; eta, jakina, laguntza eta elkartasuna ematen digun Nafarroako gizartearen eskutik".

Bularreko Minbiziaren Nafarroako Elkarte

Tal y como describe el texto del Foru Dekretua que regula la concesión de la Nafarroako Urrezko Domina SARAY Bularreko Minbiziaren Nafarroako Elkarteari ematea arautu duen Foru Dekretuaren testuan zehaztuenez, SARAY irabazi-asmorik gabeko entitatea da, eta mota askotako laguntza –psikosoziala, taldekoa, lanekoa, estetikoa eta prestakuntzarako aholkularitza– ematen die gaixotasun honek jotako emakumeen eta beren senitartekoen, eta gaixoen gaixotasuna gainditzeko eta bizitza errealean eta gizartearen berriz sartzeko laguntzen die.

Bertan lan egiten duten pertsonen eta bere boluntario ugarien jardun etengabearekin, jarduerak antolatzen ditu gizarte osoa inplikatzeko, bularreko minbizia ikertzeko proiektuei ekonomikoki laguntzen die eta bere helburuak zabaltzeko plataforma eta sare sozialetan parte hartzen du. Hori guztia jokatzeko modu



eredugarria da, elkartasunezkoa eta osasunaren zaintza sustatzekoa, eta horrek guztiak gizartea hobetzen du era nabarmenean.

Elkarteak 600 bazkide baino gehiago eta berrogeita hamar boluntario inguru ditu, psikologoak eta gizarte-langileak tarteko dituen talde profesionalarekin batera.

Galería de fotos



Sarayren ordezkarien agerraldiaren une bat.



Klaustro isabeldarraren ikuspegia ekitaldiaren une batean.